

HITZ BITAN

Abiadura gorritz jazten denean

1 FORMULA. Ferrarik automobil etxe onenaren titulua eskuratu du, Schumacher txapeldunak bere autoa gidatzen du, eta baita oraingoz txapeldunorde den Barrichello ere

Jon Martin | DONOSTIA

Gorritz jantzi da abiadura aurten ere. Egia da munduko auto gidaririk onena taldean izateak garaipenak ziurtatzen dituela; baina txapeldunordea ere taldekoa denean gidarien eta mekanikoen elkarlana begi-bistakoa da.

Rubens Barrichello izan zen Hungariako zirkuituko lehena; eta, bere itzala balitz bezala, Michael Schumacher heldu zen atzetik. Emaiza horrek eraikitzaileen txapelketa ere eskurtzea ekarri zion Ferrariari. Dagoeneko hamabi aldiz izan dira onenak sail honetan, azkeneko lau urteetan, jarraian.

Barrichello Schumacher baino azkarragoa izan zen iteera-ko postuak erabakitzekeo pro-

ban, eta lasterketan ere halaxe izan zen. Bi Ferrariak lehenengo bi postuetan heldu ziren lehen bihurtunera, eta hortik aurrera postuak apenak aldatu ziren. Izan ere, Nurburgringeko zirkuituan nekez ikusten den aurrerapenik; horregatik agian definitu zuten «aspergarritzat» pilotu askok.

Txapelketa eskuan, taldeakoa aukeran, eta txapeldunordea jokoan, eskuzabal jokatzera kondenaturik zegoen Schumacher; eta eskuzabal jokatu zuen. Nahi izan balu, akaso, aurrea har zekiokene brasildarrari; baina Jean Todt taldeko kirol zuzendariaren arginduak zehatz-mehatz bete zituen. Barrichello, orain, bigarren dago gidarietan, justu alemaniarren anaiaren, Ralf Schumacherren, aurretik.



SRDJAN SUKI / EPA

Barrichello aurrean, Schumacher atzean: bi auto, hiru itzal.

Eta horregatik, eta Michaellek gaintitu nahi duen marka bat daukalako ez du hain eskuzabal jarraituko.

Brasildarrak Austriako zirkuituan lagundu egin zion alemaniarri eta Hungariakoaren ondoren kitatu du zeukan zorra. Schumacherrek hurrengo garaipenak ditu buruan, izan ere, lehenengoa litzateke hamar garaipen lortzen, eta bere norabidea ikusita ez dira hamar bakarririk izango.

Belgikakoa da hurrengo zirkuitua, gehien zirkuitu gustukoena. Alemaniarrak ere atsegin du, bertan egin baitzuen debuta, eta bertan ospatu bost garaipen. Zaila izango da, han ere, inor berari nagusitzea. Ondoren Italiakoan lehiatu beharko dute, eta Ferrari bat gidatzen duenarentzat ez dago Italiako zirkuituan irabaztea baino horerik. Hurrengo bi lasterketetan bigarren sailkatzea lortzen badu Barrichellok Ferrarik koloreak aterako dizkie gainerako automobil etxeei. Kolore gorriak.

GOLFA

Rich Beemek irabazi du PGA torneooa

Rich Beem estatubatuarra izan zen nagusi PGA torneoan. Chaskako lurretan jokatu zen torneooa lau jardunaldiz osatua zegoen eta Beemek (72-66-72-68) amaitu zuen. Grand Slameko laugarren torneoko faborito Tiger Woods zen, eta azken jardunaldi ikusgarria egin ostean, Beemetik kolpe batera, bigarren amaitu zuen. Olazabal 69. geratu zen (73-75-77-80).

VOLEIBOLA

Errusiarrek Munduko ligako txapeldun

Errusiarrek 3-1 irabazi zieten brasildarrei herenegun jokatu zen Munduko Ligako finalean. Brasildarrak ziren faborito, besteak beste, etxean jokatzeko zutelako; eta azken sei finalak irabazi zituztelako. Errusiarrek kontzentratuago jardun zuten, ordea, eta irabazteko falta zitzaien titulu bakarra eskuratu zuten, Munduko Ligakoa.

SASKIBALOA

Calderonek ez du denboraldi-aurrea Taurekin egingo

Jose Manuel Calderon Tau-Ceramicako jokalaririk ez du denboraldi-aurrea bere taldean amaituko, izan ere, Indianapoliseko Mundiala Espainiarekin jokatzeko deitu dute. Jokalaria ez zegoen selekzioarako deituta; baina Raul Lopezek, lesionatu ostean, utzitako hutsa betetzeko joango da Indianapoliserara. Bestalde, Elliot Sims ondoezak jota joan zen Gasteizko Poliklinikara. Antza, gastroenteritis batek deshidratazioa eragin zion pasaporte espainiarren esperoan dagoen jokalaria.

TENISA

Rusedski Mantillari nagusitu zitzaion Indianapolisen

Greg Rusedski txapeldun izan zen Indianapoliseko torneoan eta 800.000 dolar patrikaratu zituen. Finalean Felix Mantillari gailendu zitzaion 6-7 (6-8), 6-4, eta 6-4. Denboraldiko bigarren garaipena da Rusedskirentzat, eta merezia, izan ere zirkuituko jokalaririk onenetarikoak kanporatu ditu: Lleyton Hewitt eta Tom Haas.

PIRAGUISMOA

Munduko Piraguismo Txapelketa Portugalen jokatu da ziurrenik

Munduko Piraguismo txapelketaren barruan, iragan asteburuan jokatzekoa zen maratoni proba Portugalen egingo da ziurrenik. Txekiar Errepublikan ospatzekoa zen Mundiala, baina izandako euriteak medio bertan behera utzi behar izan zuten. Etzi bilera bat egingo da, eta bertan erabakiko da Mundiala jokatu edo bertan behera utzi.

BELA

Pairatzen dituen arazoak gaintitu ezinik, Amaiur Alfarok Figaro lasterketa utzi behar izan du

Amaiur Alfarok ezin izan du lehen bi etapetan izandako arazoak gaintitu eta bertan behera utzi behar izan du Figaro belantzi lasterketako hirugarren etapa. Alfarok arrantzontzi baten kontra jo zuen eta arazo larriak izan zituen masta hautsi zitzaiolarik. Motorra erabili behar izan zuen portura sartzeko. Lapurtarrak ez zuen denborarik ukan ontziko arazoak konpontzeko eta arazo larriak ditu ontziko material elektronikok. Hurrengo etapan parte hartzeko gogo bizia adierazi du Alfarok.

ATLETISMOA. Naroa Agirre 4,40 metroko marka gaintitzen saiatuko da



JAVIER ETXEZARRETA / EFE

Donostiako Sari nagusia jokatu da gaur arratsaldean

Gaur jokatu da Donostiako Sari Nagusia, bertan mundu osoko atletak hartuko dute parte. Arratsaldeko 17:45ean hasiko dira probak eta 21:00ak alderako amaituko. Guztira 230 atleta lehiatuko dira. Argazkian Naroa Agirre donostiarra; eta Chema Martinez, Glory Alozie, eta Antonio Jimenez espainiarrak ageri dira atzo eman zuten prentsaurrekoaren ostean.